


24_25

Tolosako
**Herritarren
Batzarra**



Gomendioen betetze mailaren txostena

2025eko urtarrila



tolosatzen
PARTAIDETZA PROZESUAK

2022ko urriaren 22an eman zitzaion hasiera **Tolosako lehen Herritarren Batzarrari**.

32 batzarkidek 40 orduz lan egin zuten 5 larunbatetan, 2022ko urritik 2022ko abendura bitartean, Prometea eta Aztiker erraztatzaileen laguntzarekin.

Hiru fasetan banatuta eraman zen aurrera prozesua: **informazio** fasea, **deliberazio** fasea zein **gomendioen lanketa** eta **aurkezpena**.

Batzarkideek hasierako galderari erantzunez **14 gomendio** proposatu zituzten eta horiek abenduaren 17an egindako itxiera saioan aurkeztu zituzten.

2023ko martxoaren 25eko itzulpen saioan Tolosako Udalak jasotako 14 gomendioen baitako bere konpromisoa edierazi zuen ta 14 gomendioetatik **12ri babes osoa** adierazi zien.

Gomendioen koadro orokorra

Gomendioa	Babesa	Aurrekontua	Epeak
A Arkitektura inklusiboa	✓ Bai	Bai	2023
B Tolosarren ongizate emozionalaren egoera ezagutzen	✓ Bai	Bai	2025-26
C Denok dugu boluntario bat barruan	✓ Bai	Bai	2024-27
D Ongizate emozionalerako laborategia: Labea edo baratza kolektiboa	✗ Ez	Ez	
E Herritarren beharrak herriko zerbitzuekin asetzeko informazio gunea	— Bai aldatetekin	Bai	2024-25
F Etxegazte	✓ Bai	Bai	2024-25
G Arrakala digitala gaitzen	✓ Bai	Bai	2024
H Nerabeak, LGTIQ+, suizidioa: arreta, hezkuntza eta esku-hartzeko programa	✓ Bai	Bai	2024-26
I Existitzen diren asoziazioetan boluntariotza garaikidea esperimintatzea: tutoretza, bitartekaritza, bidelaguntza zerbitzua	— Bai aldatetekin	Bai	2024-26
J Ontzi komunikatzaileak. Harremanak eta sareak sortzen dituzten ekimenak (adinik gabe)	— Bai aldatetekin	Ez	2025
K Espazioa eta aisia, gazteak (13/18)	— Bai aldatetekin	Bai	2023-2024
L Gazteak eta elkarte gastronomikoak	✗ Ez	Ez	
M Gune berdeak	✓ Bai	Bai	2023
N Konfidantza instituzionala: parte hartzeko dinamika iraunkorrak	✓ Bai	Ez	2023-2024

Geroztik, Tolosako Udala, hartutako konpromezuak lantzen hasi zen eta betetze mailaren berri emateko **2 jarraipen saio** egin zituen batzarkideekin batera: lehena 2023ko azaroaren 4ean eta 2024ko maiatzaren 25ean bigarrena.

Jarraipen saio hauetan kontu emandakoak honako estekan aurki daitezke:

2023ko azaroa: [klikatu hemen.](#)

2024ko maiatza: [klikatu hemen.](#)

2024ko maiatzeko jarraipen saioan adostu bezala, dokumentu berri honen bitartez, geroztik Tolosako Udalak aurrera eramandako lanen berri eman asmo da.

- A** Arkitektura inklusiboa
- B** Tolosarren ongizate emozionalaren egoera ezagutzea
- C** Denok dugu boluntario bat barruan
- E** Herritarren beharrak herriko zerbitzuekin asetzeko informazio gunea
- F** Etxegazte
- G** Arrakala digitala gainditzea
- H** Nerabeak, LGTBIQ+, suizidioa: arreta, hezkuntza eta esku-hartzeko programa
- I** Existitzen diren asoziazioetan boluntarioritza garaikidea esperimintatzea
- K** Espazioa eta aisia, gazteak (13/18)
- N** Konfidantza instituzionala: parte hartzeko dinamika iraunkorrak

Arkitektura inklusiboa

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Hiriko elementuak eta altzariak aldatzeko plan bat prestatu eta gauzatu

2. Herritar guztien irisgarritasuna eta erabilera bermatu



Udalaren erantzuna

- A.1 Udalean zeharkako batzorde bat sortu (2023)
- A.2 Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin (2023)
- A.3 Plan eta Proiektuak gauzatu herritarren parte hartzea sustatuz (2023)
- A.4 Tolosako jarduera irizpideak zehazten dituen protokoloa (2025)



Jarraipen saioa

- A.1 Abenduan eratuko da **Arkitektura eta Hirigintza Inklusiboari** buruzko **Udal Batzordea**.
- A.2 Sailek eginak dituzten **planak eta informazioa aztertuko dira** diagnostikoa egiteko.
- A.3 **Irisgarritasun planaren berrikusketa** martxan jarri zen, **partaidetza irekian oinarrituta**.



Jarraipen saioa

- A.1 **Lantaldea** sortu da: 2 hilean behin elkartu, eta zerrendatutako **gaiak aztertzeko** konpromisoa hartu da. Bi saio egin dira.
- A.3 **Irisgarritasun Planaren berrazterketa**
 - Irisgarritasun planaren diagnostikoa
 - Bide publikoa eta eremu libreak
 - Garraioa
 - Udal eraikinak
 - Mugi Tolosa - Oinezko ibilbideen azterketa partaidetza irekian oinarritua
 - Zabalarreta parkearen berrazterketa partaidetza irekian oinarritua
 - Brigadaren interbentzioa espaloien hobekuntzan

A GOMEN
DIOA

Arkitektura inklusiboa

Azken 8 hilabeteetako urratsak:


AUZOEKIN

Tolosako auzoak garatzeko estrategia da. Herritarrek parte hartzeko, hausnartzeko eta elkarlanean aritzeko proiektua, gure herriko auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatuko duten tokiko politikak diseinatu eta abian jartzea helburu duena.

Udalaren eta auzoen arteko harremanean **giltzarri**. Lanketa hori progresiboa izango da. 2025. urtean **hiru eremutan** egingo da: **San Esteban, Izaskun eta Landa Eremuko** auzoetan.

Udalaren **baliabide eta inbertsioak** herriko eremu guztietara modu antolatuan iristeko ahalegina egin nahi da. Horretarako bitarteko nagusia **parte hartzea** izanik.

Herria zortzi zonatan banatu eta horietako bakoitzerako **diagnostiko integral** bat eta 4 urterako **ekintza plan** bat garatzea da udalaren helburua; aurrera begira zona bakoitzak aurrekontu bat izango du, eta auzotarrek lehenetsi ahal izango dute zertara bideratu dirua.



Informazio gehiagorako: [Prentsa oharra](#)

Tolosarren ongizate emozionalaren egoera ezagutzen

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Hiriko elementuak eta altzariak aldatzeko plan bat prestatu eta gauzatu

2. Herritar guztien irisgarritasuna eta erabilera bermatu



Udalaren erantzuna

- A.1 Udalean zeharkako batzorde bat sortu (2023)
- A.2 Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin (2023)
- A.3 Plan eta Proiektuak gauzatu herritarren parte hartzea sustatuz (2023)
- A.4 Tolosako jarduera irizpideak zehazten dituen protokoloa (2025)



Jarraipen saioa

- A.1 Abenduan eratuko da **Arkitektura eta Hirigintza Inklusiboari** buruzko **Udal Batzordea**.
- A.2 Sailek eginak dituzten **planak eta informazioa aztertuko dira** diagnostikoa egiteko.
- A.3 **Irisgarritasun planaren berrikusketa** martxan jarri zen, **partaidetza irekian oinarrituta**.



Jarraipen saioa

- A.1 **Lantaldea** sortu da: 2 hilean behin elkartu, eta zerrendatutako **gaiak aztertzeko** konpromisoa hartu da. Bi saio egin dira.
- A.3 **Irisgarritasun Planaren berrazterketa**
 - Irisgarritasun planaren diagnostikoa
 - Bide publikoa eta eremu libreak
 - Garraioa
 - Udal eraikinak
 - Mugi Tolosa - Oinezko ibilbideen azterketa partaidetza irekian oinarritua
 - Zabalarreta parkearen berrazterketa partaidetza irekian oinarritua
 - Brigadaren interbentzioa espaloien hobekuntzan

B GOMEN
DIOA

Tolosarren ongizate emozionalaren egoera ezagutzen

Azken 8 hilabeteetako urratsak:

ZAINTZA EKOSISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

Tolosako Udala **Tolosako zainketen diagnostiko** bat egiten ari da. Herriko zainketen beharrak zein diren, nork konpontzen dituen, nola egiten duten eta ulertzeko ezinbestekoa zer den aukera emango duena, zaintzak bermatuko dituen Tolosako eredu baterantz aurrera egin ahal izateko.

Tolosako zainketen diagnostikoa egiteko udalak Daiteke enpresaren zerbitzuak kontratatu zituen eta lehen fasean **Tolosako Zaintza Ekosistemaren mapa** landu zuen, Tolosako eguneroko bizitzako esparru desberdinetan zaintza lanak burutzen dituzten eragileen mapa osatze aldera.

Behin lanketa hau burututa, 2. fasea zabaldu zen, azterketa kuantitatiboarena: zaintza-zerbitzuetan ematen den arretari buruzko datuak aztertu, gaiarekin harremana duten diagnostiko desberdinen azterketa eta datu esanguratsuen estrapolazioa egin asmoz.

Azken fasea azterketa kualitatiboarena izan da. Profil anitzeko herritarrekin norbanako elkarrizketak eta focus-group edo eztabaida taldeak antolatu dira. Une honetan diagnostikoaren ondorioak idazten ari dira.

Lanketa hau [Haurren Hiriaren](#) egitasmoarekin osatu da. Egitasmo honen barruan, Tolosako zaintza eredua aztertu eta hori hobetzeko proposamenak landuko dituzte Laskorain, Herrikide eta Samaniego ikastetxeetako 42 haurrek.

Informazio gehiagorako: [Prentsa oharra](#)



Senide baten zainketa/bozazko zainketa: **ABENDUAK 2**
DICIEMBRE

Etxe eta zainketa zerbitzuetako langile bozazko: **ABENDUAK 4**
DICIEMBRE

Gehien komeni zaizun ordutegia aukeratu
Elige el horario que mas te convenga

10:00-11:30 KULTUR ETXEA **EUS**
18:00-19:30 EUSKALTEGIA **CAS**
(GOROSABEL-RONDILLA 34)

747495569
marina.azkorizaga@daiteke.com

Zaintza zerbitzua eskatu azaroaren 29rako
Solicita servicio de cuidados antes del 29 de noviembre

TOPAKETA - ENCUENTRO
TOLOSAKO ZAINTZA DIAGNOSTIKOA
Adingabeak, adinekoak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak zaintzen badituzu entzun nahi zaituztegu

DIAGNÓSTICO DE CUIDADOS DE TOLOSA
Queremos escucharos si cuidas a menores, mayores, personas en situación de dependencia, con diversidad funcional

TOLOSA

DENOK DUGU BOLUNTARIO BAT BARRUAN

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea

2. Gizarte integrazioa

3. Auzolana kontzeptua garatzea



Udalaren erantzuna

C.1 Boluntariotza sustatzeko pizgarriak identifikatu eta indarrean jarri

C.2 Lehen Boluntariotza Azoka antolatu



Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa




Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa

ELKARTEEN ETA BOLUNTARIOTZA AZOKA

Tolosako elkarten eta Boluntarioen Azoka ospatu zen 2024ko urriaren 23an, Zerkausian. Bertan **27 elkartek eta 693 ikaslek parte hartu** zuten, boluntariotzari balioa eman eta herritarren arteko elkarlana sustatzeko helburuarekin. **Gizalde** elkartearen eskutik Euskadiko eta Tolosako elkartegintzaren egoeraren berri eman zen eta elkarteetako ordezkariak, ikasleekin batera, **elkartegintzaren eta boluntariotzaren egungo egoeraren eta beharren inguruan hausnartu** zuten.

Informazio gehiagorako: [Prentsa oharra](#)



Herritarren beharrak herriko zerbitzuekin asetzeko informazio gunea

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Informazio bulegoa sortu

2. Webgune erabilerraza

3. Arreta eskainiko duen telefonoa



Udalaren erantzuna

E.1 Euskarri desberdinak sortu



Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa



Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa

TOLOSAKO UDALAREN WEB-ORRIAREN DIAGNOSTIKOA

Tolosako Udalak, **Worköholics** zerbitzu enpresaren bitartez, www.udala.tolosa.eus webgunearen egungo egoeraren azterketa egin du, eta aztertu ditu egiturari, irisgarritasunari eta edukien kudeaketari buruzko mugak.

Txosten hau egin da Tolosako Udalaren webgunearen egungo erabilera **hiru ikuspegi** nagusitatik aztertzeko eta ebaluatzeko: **herritarrak, udal-sailak eta udaleko lantalde bat**. Horretarako, datuak biltzean oinarritutako metodologia erabili da, inkesten, elkarrizketen eta focus group saioen bidez, **ikuspegi integrala eta partaidetzazkoa** ziurtatuz.

Erabiltzaile desberidnen interes zein beharrei egokitutako webgune bat helburu izanik, komunikazio **irekia** eta **irisgarria** sustatzea ezinbestekoa da. Horregatik, elkarreraginerako tresna **hurbil eta gardena** izan behar du webguneak, komunitatearen beharrei erantzuteko, eta Udalaren eta biztanleriaren arteko harremana sendotzeko.

2025ean zehar, azterketatik abiatuta, udal web orri berria martxan jartzeko zerbitzuak kontratatuko dira.



JASO TOLOSAKO
UDALAREN BERRIAK
WHATSAPP BIDEZ



WHATSAPP KANALA

Tolosako Udalaren berriak WhatsApp bidez jasotzeko aukera izango da aurrerantzean.

Udalari eta udalerriari lotutako aktualitatearen berri emango da WhatsApp bitartez; hau da, udalaren berri garrantzitsuenak ez ezik, alertak, mugikortasunari lotutako abisuak edota intzidentziak ere jakinaraziko dira.

Norabide bakarreko kanalak dira; hau da, udalak bidalitako mezuak soilik ikusi ahal izango dituzte harpidetzen diren erabiltzaileek, ez beste inorenak. Pribatutasunaren ikuspegitik, gainera, inork ezingo du jakin nor dagoen kanalera harpidetuta.

Kanaletara harpidetzeko bi aukera daude, euskarazkoa eta gazteleraazkoa.

- **Euskaraz:** <https://whatsapp.com/channel/0029VavPmihFi8xbgpxVtG2E>
- **Gazteleraaz:** <https://whatsapp.com/channel/0029Vb0IFCkAInPcjgRgiL2B>



Batzarkideen gomendioa

1. Etxebizitza hutsak: jabeei alokatzen lagundu

2. Alokairu soziala



Udalaren erantzuna

F.1 Etxebizitza hutsak

F.2 Alokairu soziala

F.3 Etxebizitza eredu berrien inguruko gogoeta



Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa



Jarraipen saioa

F.1 eta F.2

Dirulaguntzak egokitu dira:

- Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez alokairu soziala bultzatzeko dirulaguntzak emateko 2024 urterako deialdian diru kopurua handitu da. (Bizigune)
- Tolosan etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak: onuradunak gehitu eta kopuruak errealitatera egokitu.

Tolosa **gune tentsionatua** izendatzea

- Lau hilabeteko lana
- Faseak
 - Biztanleria eta etxebizitzaren diagnostikoa
 - Etxebizitza plan espezifikoak: desorekak zuzentzeko ekintza plana
 - Justifikazio memoria
- Babes ofizialeko etxebizitzak: **Amarotz (bigarren fasea)**

F.3 Etxebizitza proiektu publiko komunitarioa: lurramendi

- 12-15 etxebizitza gazte eta helduentzat
- Eredua partaidetza bidez lantzea
- GazteParte prozesuko eskaerarekin bat etorrira



Etxebizitza eredu berrien jardunaldia

Jardunaldia lehenengo, eta parte hartze prozesua ondoren.

Iurramendin **belaunaldi arteko** etxebizitza proiektu bat abiatu asmo du udalak. Adin tarte ezberdinetako bi kolektibori -gazteei eta adin nagusiko pertsoneri— lekua egin eta **elkarren arteko elkarbizitza** sustatzea da nahia.

Honela, bi helbururi aurre eginez; **gazteen emantzipazio** beharrari beste aukera bat ematea; eta, bestetik, **adinekoentzako zaintza** ikuspegia bilduko duen etxebizitza eredu bat sustatzea.

Abiapuntu modura, proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen Udalak jardunaldian. Otsailaren 4ean **parte hartze prozesuari** eman zitzaion **hasiera** lehenengo saioarekin. Proiektua lantzen jarraitzeko martxoan eta apirilean beste hiru saio izango dira, guztiak Topagunean 18:30etan izango dira.

Informazio gehiagorako: [Prentsa oharra](#)

ETXEBIZITZA eredu BERRIAK

Tolosan gauzatu nahi den belaunaldi arteko proiektuaren aurkezpena eta beste adibide batzuk

Presentación del proyecto de vivienda intergeneracional que se pretende poner en marcha en Tolosa y otros ejemplos

Azaroak 20, de noviembre
18:00, Pleno aretoa
Elebitan | Bilingüe



TOLOSA

Arrakala digitala

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Pantaila interaktiboak

2. Erreferentziako zerbitzuak


3. Gailuen diseinua zailtasunak dituzten adineko pertsonekin egokitu



Udalaren erantzuna

G.1 Erreferentziako zerbitzuak eta gaitasun digitalak garatzeko egitasmoak

G.2 Gailu berri guztiak diseinu-fasean probatzea



Azaroa

Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa



Maiatza

Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa

TOLOSAKO UDALAREN WEB-ORRIAREN DIAGNOSTIKOA

Tolosako Udalak, *Worköholics* zerbitzu enpresaren bitartez, www.udala.tolosa.eus webgunearen egungo egoeraren azterketa egin du, eta aztertu ditu egiturari, irisgarritasunari eta edukien kudeaketari buruzko mugak.

Txosten hau egin da Tolosako Udalaren webgunearen egungo erabilera **hiru ikuspegi** nagusitatik aztertzeko eta ebaluatzeko: **herritarrak, udal-sailak eta udaleko lantalde bat**. Horretarako, datuak biltzean oinarritutako metodologia erabili da, inkesten, elkarrizketen eta *focus group* saioen bidez, **ikuspegi integrala eta partaidetzazkoa** ziurtatuta.

Erabiltzaile desberidnen interes zein beharrei egokitutako webgune bat helburu izanik, komunikazio **irekia** eta **irisgarria** sustatzea ezinbestekoa da. Horregatik, elkarreraginerako tresna **hurbil eta gardena** izan behar du, komunitatearen beharrei erantzuteko, eta Udalaren eta biztanleriaren arteko harremana sendotzeko.

2025ean zehar, azterketatik abiatuta, udal web orri berria martxan jartzeko zerbitzuak kontratatuko dira.

WHATSAPP KANALA

Tolosako Udalaren berriak WhatsApp bidez jasotzeko aukera izango da aurrerantzean.

Udalari eta udalerritari lotutako aktualitatearen berri emango da WhatsApp bitartez; hau da, udalaren berri garrantzitsuenak ez ezik, alertak, mugikortasunari lotutako abisuak edo intzidentziak ere jakinaraziko dira.

Norabide bakarreko kanalak dira; hau da, udalak bidalitako mezuak soilik ikusi ahal izango dituzte harpidetzen diren erabiltzaileek, ez beste inorenak. Pribatutasunaren ikuspegitik, gainera, inork ezingo du jakin nor dagoen kanalera harpidetuta.

WhatsApp kanal berri honek komunikazioa zuzenagoa eta eskuragarriagoa ahalbidetuko du, beste sare sozial batzuk erabiltzen ez dituztenengana iristeko arrakala digitala txikituz.

Kanaletara harpidetzeko bi aukera daude, euskarazkoa eta gazteleraazkoa.

- **Euskaraz:** <https://whatsapp.com/channel/0029VavPmihFi8xbgpxVtG2E>
- **Gazteleraz:** <https://whatsapp.com/channel/0029Vb0IFCkAlnPcjgRgiL2B>



Nerabeak, LGTBIQ+, suizidioa: arreta programa, prestakuntza eta esku hartzea

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Heziketa ikastetxeetan

2. Profesionalen laguntza prozesuan

3. Sentsibilizazioa



Udalaren erantzuna

H.1 Ezagutza-formakuntza, sentsibiltzazioa, prebentzioa

H.2 Identifikatzea eta bideratzea

H.3 Erreparazioa

H.4 Formakuntza (2024)

H.5 Programazio berria (2024-25)

H.6 Suizidioa prebenitzeko protokoloa edo gida (2025-26)



Azaroa

Jarraipen saioa

Siadeco elkartearekin haur, nerabe eta gazteen **diagnostiko eta plana.**

Biziraun elkarteko psikologoa.
Galdetegiaren 1. diseinua.



Maiatza

Jarraipen saioa

Galdetegiaren 2. diseinua:
Jon Garcia Ormaza (mediku psikiatra) eta **Alex Muelaren** (irakasle eta doktorea EHU) esku hartzea.

- Gadetegia **550 profesionali bidali** zaie. Tolosako 3451 neraberekin dute harremana.
- Ekainean lehen **ondorioak ahoz.**
- Irailean **txosten idatzia.**

H.4 Formakuntza plana (2024ko udazkena)

H.5 Jardueren programazio egokitua (2024-25)

Nerabeak, LGTBIQ+, suizidioa: arreta programa, prestakuntza eta esku hartzea

Azken 8 hilabetetako urratsak:

HERIKO ERAGILEEK SUIZIDIOAREN INGURUAN DUTEN EZAGUTZA AZTERTZEN



Lehen urrats bezela **Tolosako Udalak**, **Jon Garcia Ormazarekin** (mediku psikiatra) eta **Alex Muelarekin** (irakasle eta doktorea EHUUn) batera, azterketa bat egin du herriko eragileek suizidioaren inguruan zer-nolako ezagutza duten eta zer premia dituzten ikusteko.

Ondoriorik nagusiena suizidioari buruzko dagoen **ezagutza baxua** izan da. Horretan oinarrituta hiru ekintza-ildo proposatu dituzte EHUko adituek, herri-mailan eragite aldera:

- Hezkuntza-programa integralak garatzea.
- Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea.
- Suizidioaren prebentzioari buruzko tailerrak eta mintegiak egitea

Otsaila eta martxoa bitartean Herrikide, Laskorain eta Orixeko klaustroei egindako azterketaren berri emango zaie eta ekainean zein irailean hezkuntza arautu eta ez-arautuko irakasleei edota boluntarioei zuzendutako hamar orduko prestakuntza-tailerrak (Gate Keeper) emango dira.

GOMEN DIOA

Existitzen diren asoziazioetan boluntariotza garaikidea esperimentatzea: tutoretza, bitartekaritza, bidelaguntza zerbitzua

Aurretik egindako urratsak:




Batzarkideen gomendioa

1. Eragile sozialekin batera
esperimentu bat egin



Udalaren erantzuna

- I.1 Boluntariotza sustatzeko pizgarriak
identifikatu eta indarrean jarri
- I.2 Herri mailako Lehen Boluntariotza
Azoka antolatu
- I.3 Esperientzia pilotua



Azaroa

Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa



Maiatza

Jarraipen saioa

Hasi gabeko gomendioa

GOMEN
DIOA

Existitzen diren asoziazioetan boluntariotza garaikidea esperimentatzea: tutoretza, bitartekaritza, bidelaguntza zerbitzua

Azken 8 hilabetetako urratsak:

ELKARTEEN ETA BOLUNTARIOTZA AZOKA

Tolosako elkarten eta Boluntarioen Azoka ospatu zen 2024ko urriaren 23an, Zerkausian. Bertan **27 elkartek eta 693 ikaslek parte hartu** zuten, boluntariotzari balioa eman eta herritarren arteko elkarlana sustatzeko helburuarekin. **Gizalde** elkartearen eskutik Euskadiko eta Tolosako elkartegintzaren egoeraren berri eman zen eta elkarteetako ordezkariak, ikasleekin batera, **elkartegintzaren eta boluntariotzaren egungo egoeraren eta beharren inguruan hausnartu** zuten.

Informazio gehiagorako: [Prentsa oharra](#)



Bideoa: Tolosako Elkarten eta Boluntarioen Azoka 2024



Batzarkideen gomendioa

1. Espazio autogestionatua (13-18 urteko gazteentzat)

2. Komunitateari begira jardueraren bat planteatzea

3. Gazteen intereseko informazio eta komunikaziorako lekua



Udalaren erantzuna

K.1 Nerabeen Parte Hartze Foroa (2023)

K.2 Komunitateari begira jardueraren bat planteatzeko aukera

K.3 Espazio autogestionatua Azterketa (2024)

K.4 Gazteentzako interesgarriak diren hainbat gai buruzko **informaziorako eta komunikaziorako lekua**



Jarraipen saioa

K.1

- **Nerabeen Parte Hartze Foroa.** Entzute prozesu kualitatiboa egin da: Tolosako 12-17 urteko aisialdirako beharren inguruan dituzten kezka, ideia eta proposamenak galdetegi digital baten bidez jaso dira.
- **Aisialdi taldea** eratu da bildutako ideiak proiektu bilakatu eta ekintza plana sortzeko helburuarekin.
- **Analisia** egingo da fase digitalean, aisialdi taldeak ondorioztatutako ideia eta iritziekin.
- **Ekintza planaren diseinua.**



Jarraipen saioa

Osoigorekin elkarlanean **Nerabeen Foroa** proiektua.

- Topaguneko 10 gazterekin **lehen galdetegi digitala** landu zen.
- **Galdetegi digitala** betetzeko hezkuntza formaleko profesionali **formakuntza** eskaini zaie.
- **Martxoan** galdetegia zabaldu zen: **800 erantzun** jaso dira.
- **Apirilean zozketa zibikoa:** 43 nerabe aukeratu ziren.
- **Apirila - maiatza: deliberazio saioak** egin dira gazteekin.
- **Proposamenak.**

K.2 Gazte auzolandegiak: Auzolanean konponketa eta eraberritze lanak egingo dira lurramendiko gazteekin elkarlanean.



Gazteen Inauteritako jai eredua aztertzen. Nerabeen Foroa

Gazteen parte hartzea sustatzen jarraituko du Tolosako Udalak. Horretarako **Nerabeen Foroa** osatu dute aurten ere. Inauterietan nerabeei zuzendutako ekintza eta programa gabeziari soluzio bate ematearen bidean jai ereduari dagozkion nerabeen nahiak nerabeengandik asetzea izan da prozesuaren erronka eta helburu nagusia.

Horretarako **parte hartze prozesu** bat landu du udalak herriko hiru ikastetxeetako 14 eta 18 urte bitarteko **652 nerabeekin**. Bertatik ateratako proposamen nagusiena **haur eta nerabeei** bideratutako eskaintza jasoko dituen **gune berri** bat izango dute aurten Inauteriek. Tartean tailerrak, kontzertuak, haur ikuskizunak eta herri bazkari bat ere izango dira.

Udal ordezkariak esan duten bezala, helburua, **Inauterietako Nerabeen Jai Programa osatzea** izan da. **Epe luzeko begirada** behar duen lanketa izanik, honakoa **abiapuntua** izatea da helburu.



Batzarkideen gomendioa

1. Lehendik dauden parkeak indartzea eta optimizatzea
2. Espazio berde berriak sortzea
3. Parkeetan kultura txertatzea
4. Maskotekin egoteko lekuak bereiztea
5. Belaunaldien arteko bat-egiteak sustatzea alderdi ludikoa landuz
6. Natura behatzearekin lotutako proiektu pedagogikoak sortzea



Udalaren erantzuna

- M.1 Iurramendiko Baratze Parkea dinamizatzen jarraitu eta hiri-baratzeak garatzeko **laguntza** eman
- M.2 Baso eskolarako **espazioak egokitu** (2023)
- M.3 **Baso naturalak**
- M.4 Lehendik dauden **parkeak sustatu eta optimizatu** (2023)
- M.5 Espazio **berde berriak** sortu. Degradatutako gunek berreskuratu
- M.6 **Biodibertsitate gunea**: jarduera intergenerazionala bihurtuz eta herritarrak saretuz (2023)
- M.7 Gaia aztertzeko konpromisoa hartu
- M.8 **Tolosa Klima 2050** dokumentuan jasotako proposamenak aurrera eramateko konpromisoa



Jarraipen saioa

M.2 Hondakinen prebentziorako astea

M.4 Lorezaintzako zerbitzua emateko plegu berrien prestaketa

M.6 Naturarekin lotutako hainbat ekintza

M.8 Mugikortasun plana garatzeko lana



Jarraipen saioa

M.1 Baratze parkeko erabiltzaileekin elkarlanean **ikuskapena** egin da erabili gabe dauden sailak identifikatzeko. Zenbait **konponketa** egin dira. *Inbertsioa: 2.900 euro*

M.2 Tolosako hiru **ikastetxeetako baso eskoletan hobekuntzak eta ekintzak** egin dira. *Inbertsioa: 11.000 euro*

M.3 Santa Lutziako 20 hektarea Udalaren jabetzakoak dira eta **lursail berriak** erosiko dira. Eremu horretako **kudeaketaren plangintza** egingo da klima aldaketari aurre egiteko eta energia biomasa moduan ekoizteko aukerak aztertuz. *Inbertsioa: zehazteke*

M.4 Lorezaintza zerbitzua kontratatzeko lizitazioa. (4 urte) *Inbertsioa: 2.846.544,41 euro*

M.5 San Esteban eremua **berroneratzea**. Ingurumen inpaktuaren azterketa egin da, garrantzia eman zaie korridore ekologiko eta azpiegitura berdeei. *Inbertsioa: zehazteke*

M.6 Biodibertsitate gunearen **programazioa** osatu da zenbait ekintza eta hitzaldirekin. *Inbertsioa: 45.000 euro*

M.8

- Belena patioan **bizikletak aparkatzeko sistema berria**. *Inbertsioa: 40.000 euro*
- Tolosaldea lanbide institutuarekin elkarlanean **mugikortasun jasangarria bultzatzeko aukerak aztertzen ari gara**.
- Tolosan **energia komunitatearen** sorrera sustatzeko **parte-hartze prozesuaren** proiektu bat lantzen ari gara. *Inbertsioa: 65.000 euro*
- Uzturpe kiroldegian **plaka fotovoltaikoak** martxan.
- **URA agentziarekin** bilera, ibaiari lotutako hainbat gai jorrazteko.
- **Hiri hondakinen** inguruan kanpaina bat prestatzen ari gara, hondakinen sorrera murrizteko eta edukiontziak dauden gunean garbi mantentzeko.

ZUHAITZ LANDAKETA

50 zuhaitz inguru landatuko dira herriko bi eremutan.

Urtarrilean ospatu zen **Zuhaitz Azoka Tolosan**. Otsailean ere zuhaitzen inguruko jarduera gehiago egingo dira, herriko natura eta fauna ezagutzera emateko, eta herritarrak biodibertsitatearen alde engaiatzeko eta sentsibilizatzeko.

HEGAZTIEN HABIA-KUTXAK

Faunari lotutako ekintzak ere izango dira: Aranzadi Zientzia Elkarteak hegaztien inguruko eskuhartzea egingo du, eta herriko hainbat puntutan hegazti intsektujaleen habia-kutxak jarri ostean, haien jarraipena egingo du.

Guztira 30 habia-kutxa jarriko dira, eta horretarako herritarrei zuzendutako ibilaldiak egingo dira, ikerlariek gidatuta.

BASO BERRIEN EROSKETA

Aurrekontuetan 72.000 euroko partida bat dago bideratua oraindik erabaki gabe dagoen lursail bat erosteko. Lur eremu horie zein izan daitezkeen proposamen zerrenda bat badago.

2025erako aurrekontu-partidaren barruan, 72.000 euroko erreserba bat sartu da, eta bertako esperizioak dituen lursail bat erosteko erabiliko da, baso publikoen azalera handitzeko.



Konfidantza instituzionala: parte hartzeko dinamika iraunkorrak

Aurretik egindako urratsak:



Batzarkideen gomendioa

1. Parte hartzea instituzionalizatzea
2. Erabakiak betetzea
3. Dinamiken jarraipena bermatzea



Udalaren erantzuna

- N.1 Gomendioen inplementazioan eta jarraipenean **parte hartzea**. (2023-24)
- N.2 Gomendioen inplementazia partaidetzan oinarritua.



Jarraipen saioa

- N.1
 - **Jarraipen Batzordea:** 2023ko iraila
 - **Gomendioen inplementazioari jarraipena:** 2023ko azaroa
 - **Jarraipen Batzordea:** 2024ko maiatza
 - **Gomendioen inplementazioari jarraipena:** 2024ko ekaina
- N.2 **Gomendioen inplementazia partaidetzan oinarritua:** Jarraia, egitasmoen exekuzioaren arabera.



Jarraipen saioa

- N.1 **Partaidetzan oinarritua:**
 - Arkitektura inklusiboa eta Irisgarritasun Plana
 - Alde Zaharra berroneratzeko plan integrala
- N.2
 - **Herri behatokia:** Arantzazulab + Deliberatiba. Diseinuaren hausnarketa. Herri Batzar Iraunkorra.
 - Jarraipen politikoa, teknikoa eta herritarra hausnartuz besteak beste
 - **Decidim:** herritarren partaidetzarako plataforma (Galdakaoko Udala)
 - **Auzoen mahaia eta auzo-planak**
 - **Tolosako partaidetza ekosistemari buruzko azterketa** (EHU)

TOLOSAKO HERRITARREN BATZARRA EREDU

‘Demokrazia Deliberatiboaren hedapena eta instituzionalizazioa Euskadin’ jardunaldia burutu zen 2024ko azaroaren 15ean Tolosan. Bertan, Tolosako Herritarren Batzarra praktika eredugarri gisa definitu zuen OCDE/ELGA erakundeak, ‘Demokrazia deliberatiboa sustatzen Euskadin’ txostena aurkezterakoan.

Tolosako Udalak herritarren parte hartzean **sakontzen jarraitzeko konpromezua** adierazi zuen eta martxan dauden **hiru lan lerroak** aurkeztu ziren bertan:

- [Herritarren Batzar Iraunkorra](#): Orain artekoan oinarrituta, Herri Asanblada iraunkor bat sortzeko baldintzak eta beharrak aztertu dira, eta hortik abiatuta hausnarketa bat egin da, 4 urtean behin herritarren batzar bat martxan jarri ahal izateko.




Konfidantza instituzionala: parte hartzeko dinamika iraunkorrak

Azken 8 hilabeteetako urratsak:

- Erabaki Tolosa, parte hartze digitalerako tresna: Herritarren parte hartzerako 'Decidim' plataforma digitala martxan jartzeko zerbitzua kontratatu eta laster martxan jartzekoa da. Software librekoa eta oso zabaldua mundu osoan zehar. Plataforma honen bitartez, parte hartzeko guneak eratu ahal izango dira, eta herritarrek egitasmo, batzar, prozesu edo gai zehatzei jarraipen sakonagoa egiteko aukera ahalbidetuko du, baita inkesta, proposamen, bozketa eta iritziak jasotzeko bestelako bideak jorratzeko ere.
- [AuzoEkin](#), Tolosako auzoen garapen integral orekaturako: Tolosako auzo elkarte batzuekin batera, parte hartzerako markoa diseinatu du udalak azken hilabeteotan. Zortzi eremutan antolatu da herria eta eremu horietako bakoitzean, diagnostiko orokorra egin ostean, lau urterako plana landu nahi da, ekintza-komunitarioaren bidetik, elkarlanean jarduteko. Gainera, parte hartze bidezko aurrekontuekin uztartu nahi da, eta eremu bakoitzeko auzotarrek urtez urte dagokien aurrekontuarekiko erabaki ahalmena izango dute.



Irudia: Erabaki Tolosa



Irudia: AuzoEkin proiektuko 8 eremuak

Tolosako Herritarren Batzarreko informazio guztia hemen ikusi daiteke.

ESKERRIK
ASKO!